

Fabrikazio eta diseinu industrialak ikastaroan izena eman daiteke

—OIHANA CABELLO ELORRIAGA

Gaztedi Busturialdea proiektuaren baitan, gazteak fabrikazioan eta diseinu industrialean (NX CAD Siemens) trebatzeko ikastaroa antolatu dute. Lana bilatzea lana da programaren baitako ikastaroa da, eta izena emateko epea luzatu egin dutela jakinarazi dute. Hain zuzen, interesa duten gazteek otsailaren 2ra arte izango dute horretarako aukera.

Arratzu, Bermeo, Ereño, Forua, Gauteziz Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka eta Sukarrietako gazteei zuzendutako ikastaroa da. Otsaila eta martxoaren bitartean, guztira 210 eskola ordu hartuko dute ikasleek. Zehaztu dutenez, ikastaroa tituludun gazteei zuzenduta dago; hau da,

goi-mailako ingeneritza edo ingeneritza teknikoak zein goi mailako lanbide heziketa ikasi edo amaitzear dutenentzat. Horiek, ingeneritza mekanikoan ezagutza aurreratuagoa jasoko dute ikastaroan.

Ingeles maila

Ikastaroa hartzeko gutxieneko ingeles maila eskatzen dute, eta prozesuan egingo duten elkarriketan baloratuko dute ikasle-gaiak maila nahikoa duen.

Antolatzaileek esan dutenez, formakuntza hori jaso ostean, Busturialdeko gazteek laneratzeko aukera handiagoak izango dituzte.

Ikastaroa Arratzuko Madarriene baserrian emango dute, eta lekuak mugatuak dira. 18 eta 35 urte bitartekoei dago zuzenduta.

Publierreportajea

Autogestioan oinarrituta, Sutearon bazkideek babesten dituzte euren etxebizitzak

Sutearo

Landa eremuetako etxebizitzak babestea. Horretan datza Sutearoren lanaren garrantzia. Duela 26 urte Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herritarrek hasitako lanari heldu, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dira sutearoak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 39 sutearo edo ermandade dira gaur egun.

Elkarte bezala funtzionatzen dute, kooperatiba baten filosofia da Sutearorena. Hala, bazkide denen artean babesten dituzte etxebizitzak. Autogestioan oinarritzen dira horretarako, eta denen artean babesten dituzte etxebizitzak, denen parte hartzearekin. Hori, eta irabazi asmorik ez izatea da aseguru etxeengandik bereizten diena. Zornotzan dute bulegoa, eta hango langileek bazkideen beharrik kudeatzen dituzte. Hori da euren lana, sutearoetan, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiak kudeatzea. «Normalean, denek ditugu arau berdinak baina bazkideek erabakitzen dute arau horiek zeintzuk diren. Sutearok ermandadeen aginduak betetzen ditu, aurerra eraman», diote.

Beraz, lehenago ere bazegoen errealtate bati forma juridikoa

emateko sortu zen Sutearoko Federazioa, etorkizuna bermatzeko. Bazkideak jartzen duen diruarekin guztion artean, era solidarioan, ordaintzen dituzte kalteak. «Bazkideak jartzen duen dirua konponketak, sinies-

tan ordaindu behar duten kuota oso garestia izaten da. Sutearok, aldiz, ez ditu baserriak baztertzen, bere baitan hartzen ditu; «gure ardura delako baserri inguruko etxebizitzak babestea».

Horregatik, Sutearora hurbiltzen direnei beren filosofiarekin bat egitea eskatzen diete, ez prezioagatik. «Autogestioan, lankidetzan lan egiten dugu, eta batzarretara joateko eskatzen dugu, erabakiak denen artean hartzen ditugulako. Elkarrekin transbersala da, eta gure proiektua denen artean egindakoa da», azpimarratu dute.

Ermandade bakoitzean batzar bat egiten dute urtean, inguruko bazkide denak biltzen dituen. Urteko balantzea egin, kontuak aurkeztu eta eztabaidatu beharrekoak lantzen dituzte, sutearo bakoitzean tokiko gai ordenari jarraituz. Horrez gain, ermandadearen batzordea aldatzeko baliatzen dute batzarrera, eta hurrengo urtean ermandadeko ordezkari zeintzuk izango diren jakitera emateko.

Autonomoak direlako du sutearo bakoitzak tokian tokiko batzordea. Hurbila delako. Eta bazkideek duten beste abantaila bat da norberak erabakitzen duela etxean egin beharreko konponketa nork egingo duen. «Sutearok peritua bidaltzen du, baina gremioa bazkideak berak biltzen du, inguruko artean sinergiak lortzeko, eta, kilometro zero deritzan horretan oinarrituta, tokiko jendeari ere lana emateko».



Agurrak

Zorionak!



Urko Zabaleta Ugarteburu. Domekan 8 urte. Zorionak eta ez galdu barria.

Zorionak!



Urko Zabaleta Ugarteburu. ZORIONAK domekako partez. Mosu haundi bi Gernikatik!!!

Zorionak!



Zorionak bikote (Foru).

Dinky, nor helduko da berandu gaurko hitzordura?

SUTEARO, LANDA EREMUETAN KOKATUTA DAUDEN ETXEBIZITZAK BABESTERA ZUZENDUA

ELKARRI LAGUNTZEKO ERAKUNDEA

Auzolana - Elkarlana

Jauregizar, 10 - behea • 48340 Amorebieta - Etxano • tel: 94 630 00 62 - 660 39 67 00 • sutearo@sutearo.eus • www.sutearo.eus